



**Arartekoaren 2024R-652-23 Ebazpena, 2024ko otsailaren 29koa. Honen bidez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio ordain diezaiola pertsona bati saileko buruzagitza-eginkizunak betetzeagatik dagokion ordainsari osagarria, eginkizun horiek bete zituen aldiari dagokiona.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) laguntza eskatu zion Arartekoari Hezkuntza Sailak uko egin ziolako saileko buruzagitza-eginkizunak betetzeagatik zegokion ordainsari-osagarria ordaintzeari.

Kexan adierazi zuenez, saileko buruzagitza-kargua esleitu zitzaion ikastetxean lanean hasi zen egunean bertan (2022ko irailaren 22an), hortaz, data horretatik aurrera, figura horri zegozkion eginkizunak garatzen joan zen.

Ordainsari osagarria kobratzeko eskaera egiteko prozedurari dagokionez, Langileen Unitatean adierazitakoari jarraikiz, 2022ko azaroaren 12an, eskaera formala bidali zuen, eta, bertan, ikastetxeko zuzendariak ziurtatu zuen pertsona honek bere gain hartu zituela eginkizun horiek egun hartan, eta harrezkero zeregin horiek betetzen zituela.

Baieztatutakoaren arabera, 2023ko urtarrilean, eskaeraren izapidetze-egoera zein zen jakin nahi izan zuen, eta ahalik eta lasterren izapidetuko zela jakinarazi zitzaion. Ondoren, telefono-dei bat jaso zuen, eta bertan jakinarazi zioten ez ziotela ordainsari osagarria ordainduko, Hezkuntza Ikuskaritza ados ez zegoelako, izan ere, ez ziren 6 hilabete igaro eginkizunak betetzen hasi zenetik.

Telefonoz hori jakinarazi ziotenean, pertsona honek beste idazki bat aurkeztu zuen. Horren bidez, aipatutako aurrekariak azaldu zituen berriro, eta, beste behin, aipaturiko ordainsari osagarria ordain ziezaiotela eskatu zuen, oinarri hartuta, alde batetik, saileko buruzagitziari dagozkion eginkizunak benetan esleitu zitzaizkiola eta horiek bete zituela, eta beste aldetik, araudian ezarritako aukera, zeinaren arabera, eginkizun horiek esleitzeko ez baita itxaron behar karguaren titularra kanpoan egon eta 6 hilabete igaro arte.

Kexa aurkeztu zen unean eskaera horri ez zitzaion erantzun.





2. Arartekoak Hezkuntza Sailari eskatu zion jakinaraz ziezaiola aipaturiko eskaerari emango zitzaion tratamendu arrazoituari buruz, eskaeraren izapidetze-egoerari buruz eta berariazko ebazpen bat jakinarazteko aurreikusitako epeari buruz.
3. Hezkuntza Sailak erantzun-txosten bat bidali zuen, zeinaren bidez, laburbilduz, honako hau adierazi baitzuen:

- Saileko buruzagitzaren eginkizunak betetzeagatik dagokion ordainsari osagarria ikasturtea antolatzeke ebazpenean arautzen da, zeinaren arabera,

*"Titularra ez dagoenean, 6 hilabete baino gehiago edo, salbuespen gisa, epe laburragoetan, saileko beste kide bati esleitu ahal izango zaizkio haren eginkizunak. Funtzioak ikastetxeko zuzendaritzak esleituko ditu, dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Ikuskaritzak baimena eman ondoren."*

- Kexagileak ez zeramatzan 6 hilabete saileko buruzagitza-eginkizunak betetzen, izan ere, ikastetxean lan egin zuen 94 egunez.
  - Araudian saileko buruzagitza-eginkizunak 6 hilabetetik beherako aldietan esleitzeko aukera jasotzen da, baina, horretarako, Ikuskaritza Zerbitzuaren oniritzia behar da, eta hori ez zen gertatu.
  - Etorkizunean, titularra falta den kasuetan kobratzeko epea 2 edo 3 hilabete murriztea pentsatu da.
  - Dagokion Lurralde Ordezkaritzari kexagileak aurkezturiko eskaerari erantzuteko betebeharra gogorarazi zaio.
4. Txostenean adierazitakoa ikusita, Arartekoak Hezkuntza Sailera jo zuen beste behin beste lankidetzak-eskaera baten bidez, zeinean kexa honetan aztertutakoaren antzeko kontu bati buruzko aurreko espediente baten azterketa aipatzen baitzen. Horren bidez, Arartekoak hezkuntza-administrazio horri gomendatu zion ordain ziezaiola pertsona bati saileko buruzagitza-eginkizunak betetzeagatik zegokion ordainsari osagarria, eginkizun horiek bete zituen aldiari zegokiona<sup>6</sup>.

Erakunde honek adierazi zuen aplikagarritzat jotzen zituela kasu honetan bere gunean espedientearen azterketa amaitutzat jo zuen ebazpenean helarazitako gogoetak, izan ere, salbu eta Hezkuntza Sailak kexan adierazitakoaren kontra doan daturen bat aurkeztuko balu, saileko buruzagitza-eginkizunak, hain zuzen ere, esleitu egin zitzaizkion, eta horiek bete zituen, eta ikastetxeko Zuzendaritza jakinaren gainean zegoen, zuzendaritzak berak horren harira sinatu zuen ziurtagiria baieztatu zuen bezala.

<sup>6</sup> [Arartekoaren 2022R-1645-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 29koa](#)





Hori guztia dela eta, Arartekoak Hezkuntza Sailari eskatu zion jakinaraz ziezaiola ea prest zegoen kexagileari aipaturiko eginkizunak betetzeagatik zegokion ordainsari osagarria ordaintzeko; eginkizun horiek bete zituen aldiari zegokiona.

5. Kasu honetan, Hezkuntza Sailak Arartekoari adierazi zion ez zituela aplikagarritzat jotzen kasu honetan lankidetzeta-eskaeran aipatzen zen espedientean jasotako gogoetak, izan ere, kexagileak saileko buruzagitzaren eginkizunak bete zituen 3 hilabetetan zehar gutxi gorabehera, eta aldi hori ikasturtea antolatzeko araudian ezartzen diren 6 hilabeteetatik urrun dago.

### Gogoetak

1. Erakunde honek gai honi buruz dituen agiri guztiak ikusita, badirudi baieztatzen dela kexa sustatu duen pertsonak jendaurrean eta nabarmen bete zituela saileko buruzagitzaren eginkizunak ikastetxean, eta ikastetxeko zuzendaritzak eman zizkiola eginkizun horiek, eta, ondorioz, hezkuntza-administrazioa osatzen duen organo batek, lanpostu bat betetzeko izendatu zutenean.

Illo horretatik, aurreko kexa-espedienteen izapidetzeari dagokionez, Arartekoak bere iritzia helarazi dio Hezkuntza Sailari. Arartekoaren ustez, sail hori ohartzen denean agindutako eginkizun akademikoak benetan bete direla, inola ere ezin du jarri aipaturiko eginkizunak bete dituzten (administrazio-organo batek hala egiteko agindua eman ostean) pertsonen gain ikasturtea antolatzeko araudian ezartzen diren izapideak behar bezala bete ez izanaren erantzukizuna.

Horretarako, ez da ahaztu behar izapide horiek gauzatzea ez dagoela, inola ere ez, eraginpeko pertsonen esku edo ardurapean, baizik eta beste kudeaketa- eta erabaki-eremu batean, hau da, ikastetxeko Zuzendaritzaren esku.

2. Arartekoak errespetatu egiten ditu Hezkuntza Sailak bere eskumenei dagozkien gaiak kudeatzeko eta izapidetzeko ezarri dituen prozedurak; izan ere, administrazio publikoa da, eta legeari eta zuzenbideari bete-betean men egin behar die.

Prozedura horiek betetzea bermea da, ez bakarrik interes publikoa hobeto lortzeko, baizik eta kasu bakoitzean interesdunen posizio juridikoa defendatzeko ere, tartean diren elementu guztiak aldeztatik zehazteko eta ondoren kontrolatzeko aukera ematen baitu, eta arrazoiketa zehatz eta nahikoa jasota





geratzea eskatzen baitu. Horrek, azken batean, atak ixten dizkio jarduketa arbitrarioak gertatzeari.

Gai honen harira, eta kontuan hartuta prozedura horiek kudeatzeak eta izapidetzeak kexa honetan aztertutako kasuetan izan dezakeen irismena, Arartekoak azpimarratu behar du, lehenik eta behin, ikastetxeen kudeaketan erantzukizuna duten pertsonak araudi aplikagarria ezagutu behar dutela, bai eta beren ekintzek eta ez-egiteek zerbitzu publikoari zein beren jarduerekin zerikusirik ez duten beste pertsona batzuei ekar diezazkieketen ondorioak ere.

Arartekoak ez daki, kasu honetan, ikastetxeko Zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzaren baimenik eskatu zuen kexa sustatu zuen pertsonari saileko buruzagitzaren eginkizunak esleitzeko.

Ez daki, halaber, kasu honetan baimen hori oro har ematea ahalbidetzen duten baldintza objektiboak betetzen ziren ala, aldiz, baimen hori eskatu izan balitz, ukatu egingo zen horretarako ezarritako irizpideren bat edo batzuk urratzeagatik, hori ez baita adierazi erakunde honi bidalitako txostenetan.

Hala ere, egindako jarduketetan ez da ikusten funtsezko arrazoirik dagoenik lanpostuan sei hilabete baino gutxiago emango duen pertsona batek eginkizun akademiko batzuk betetzea galarazteko, hori gertatzen denean organo arduradunek eginkizun horiek berresteko eta, ondorioz, osagarria ordaintzeko baimen-prozedura zehatz bat jarraitu behar izatetik harago.

Prozedurak, beraz, aurreikusten du, kexa honetan gertatzen den bezala, eginkizunak 3 hilabetez baino gehiagoz modu eraginkorrean bete dituen pertsonak karguan aritzeagatik dagokion ordainsaria jasotzeko aukera.

Prozedura hori bera oinarritzen da, halaber, eginkizunak ez zaizkiolako esleitu behar eragindako pertsonari, eta, ondorioz, ez dituelako bete beharko, harik eta hezkuntza-agintari eskudunek esleipena eskatu eta hura baimendu arte.

Hala ere, arauak diseinatzen duen egoera hori funtsean desberdina da kexa honetan ikusitakoarekin alderatuta; izan ere, espedientea izapidetzean agerian geratu denez, kasu honetan eginkizun horiek benetan bete ziren.

Horregatik, ebazpen honen xede diren egitateak behar bezala ebaluatzeko, erakunde honen iritziz, ez da kontuan hartu behar alde aurreko baimenik eskatu ez izana, baizik eta, era berean, merezi duen garrantzia eman behar zaio





eragindako pertsonak eginkizun zehatz batzuk bete izanari, eta eginkizun horiek ez zitzaizkion ordaindu, araudiak eskatzen duen bezala.

3. Izan ere, hain zuzen ere, abenduaren 1eko 11/2022 Legean<sup>7</sup>, honela definitzen da lanpostu-osagarria ordainsari osagarrien barruan:

*“a) Lanpostuaren osagarria: lanpostu bakoitzaren baldintzak ordaintzen ditu, eta bi zatitan bana daiteke: destino-osagarria eta berariazko osagarria.*

*1.– Destino-osagarria, urtero finkatuko baitzaio zenbatekoa Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan, betetzen den lanpostuari dagokiona da, erantzukizun-maila hierarkikoen egituraren arabera. Egitura hori administrazio publiko bakoitzak ezartzen du bere antolaketa-ahalen arabera.*

*Destino-osagarriaren maila izendatzearen ondorioetarako, kontuan hartuko dira alderdi hauek: eskatutako titulazio-maila; lanpostuaren hierarkia- edo funtzio-harremanak eskatutako koordinazio-maila; erabakiak zein neurriak hartzerakoan izan behar den erantzukizuna, ekimena eta autonomia, eta lanpostuari dagozkion eginkizunak modu egokian garatzeko nahitaez prozesatu behar den informazioaren zailtasun-maila.*

*2.– Berariazko osagarria: kontrako arau edo itunik ezean, bakarra izango da esleitua duen lanpostu bakoitzerako. Osagarri horrek hauek ordaintzen ditu: lanpostu bakoitzaren berariazko baldintzak, aintzat hartuta zailtasun tekniko berezia, erantzukizuna, dedikazioa, nekagarritasuna edo arriskua, bai eta lanpostuaren beste edozein baldintza ere.*

*Bateraezintasunaren faktoreagatiko zenbateko espezifiko bat ezarri ahalko da baldin eta lanpostu jakin batzuetan jarduteak zerbitzu publikoarekiko erabateko dedikazioa eskatzen badu.*

*Berariazko osagarria inoiz ez da hartuko ordainsari finkatutzat; izan ere, osagarri hori jasotzeko, lanpostuan benetan zerbitzu ematen aritu behar da, hura baloratua izan zen baldintza berberetan.*

*Euskal administrazio publikoek, hala badagokio, berariazko osagarria esleitu ahal izango diete euren antolakundeko lanpostu guztiei.*

*Lanpostuari dagokion osagarriaren zenbatekoak euskal administrazio publiko bakoitzaren aurrekontu-arauan ezarriko dira, administrazio publiko bakoitzaren gobernu-organoak horretarako erregelamenduz ezarritako irizpideen arabera. Nolanahi ere, errespetatu egingo dira entitate administratibo bakoitzak osagarri horiek esleitzean izan ditzakeen berezitasunak.*

*Lege honen 47. artikuluan enplegu publikoa antolatzeko xedatzen diren tresna osagarrien bidez zehaztu ahal izango da lehen aipatutakoen artean zein faktore hartuko diren kontuan lanpostuaren osagarriaren zenbatekoak finkatzerakoan.”*

Bestalde, ekainaren 26ko 177/1990 Dekretuak<sup>8</sup>, honela, gaia garatzen du irakaskuntzari dagokionez:

*“Lehenengo atala.- Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzupeko Unibertsitatekoen besteko karrerako funtzionarioek, honako kontzeptu hauen arabera alokairuak eskuratuko dituzte:*

*A) Oinarrizko ordainsariak:*

<sup>7</sup> 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. (122. Artikulua)

<sup>8</sup> 177/1990 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzupeko unibertsitatekoen besteko irakasle funtzionarioen ordainketei buruzkoa.



- *Eurei dagokien Kidegoa edo Eskalaren titulazio taldeari dagozkion soldata eta hiru urtekoak.*

- *Aparteko bi paga emango dira urtero, horien diruzenbatekoa hilabeteko soldataren gehi hiru urtekoen arabera delarik, eta ekainean eta abenduan ordainduko dira.*

**B) Ordainsari gehigarriak:**

- *Dekretu honetako I eraskinean Kidego eta Eskala bakoitzerako izendatzen den mailari dagokion lanpostu gehigarria, horren diruzenbatekoa, uztailearen 6ko 6/1989 Legearen 79.1 atalean oharmandakoarekin bat eginez urtero zehaztu dadina izango dela.*

- *Bete dezaten lanpostuak izendatuta duen berezko gehigarria Dekretu honetako II eraskinean zehazten diren balizko eta diruzenbatekoak kontutan izanik.*

*Bigarren atala.- Oinarrizko ordainsariak eta betetzen duten lanpostu hutsaren Kidego edo Eskalari edo behin-behingo ordezkatzen duten karrerako funtzionariari dagokion lanpostu gehigarria eskuratuko dituzte aldibaterako funtzionarioek, baita betetzen duten lanpostuari izendatutako berezko gehigarria ere."*

Dekretu horrek berak zehazten du, halaber, saileko buruzagitza betetzeak zenbateko jakin bat kobratzeko eskubidea ematen duela, berariazko osagarri gisa.

Gainera, irakasle-lanpostuen zerrendak urtero argitaratzen dituzten dekretuek ezartzen dute zer zenbateko kobratu behar dituzten, berariazko osagarriaren kontzeptu horretan bertan, zuzendaritza-karguak betetzen dituzten pertsonak eta beste kargu akademiko batzuek, hala nola saileko buruzagitza, eta xedatzen dute, halaber, eginkizun horiek betetzeak horiek jasotzeko eskubidea sortzen duela<sup>9</sup>. Hala, honako hau adierazi dute:

*"Zuzendaritzako funtzioak egiteak berarekin dakar honako honetan ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea: Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioentzako ordainsariei buruzko ekainaren 26ko 177/1990 Dekretua. Unibertsitatez kanpoko irakasle publikoen lan-baldintzak arautzeko Akordioaren barruan eguneratuko dira ordainsari horiek, hain justu ere beherago zehaztutako urteko zenbatekoetan (...)."*

Azken batean, berariazko osagarri gisa ordaindu behar ziren eginkizun batzuk bete ziren, legean eta garapen-araudian xedatutakoaren arabera, eta, hala ere, arauketa horrekin kontraesanean, ez ziren ordaindu.

4. Ebazpen honen aurrekarietan aipatu den espedientea amaitu aurretik, Arartekoak antzeko beste kasu bat aztertu zuen, zeinean desadostasuna adierazi baitzen Hezkuntza Sailak lanpostuaren titularra ordezkatzen ari zen pertsona bati saileko buruzagitza-eginkizunak ordaintzeko osagarria ordaintzeari uko egin izana dela-

<sup>9</sup> Horretarako, honako dekretu hauek aurrez aurre jar daitezke: 257/2017, azaroaren 28koa; 20/2019, otsailaren 12koa; 182/2019, azaroaren 19koa; 249/2020, azaroaren 3koa; 26/2022, otsailaren 15koa eta 10/2023, urtarrilaren 24koa.



eta. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 2009an egindako txostenean<sup>10</sup> honako gogoeta hauek jasotzen ziren:

*“Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eutsitako irizpidearen arabera, sailaren buruzagitzaren osagarria lanpostuaren titularrari ordaintzen zaion ordainsaria da.*

*Irizpide orokor hori oinarri hartuta, Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko irakasle bateko osagarria jasotzeko eskubidea aitor ziezaioten egin zuen eskaera sailak gaitzetsi egin zuen. Aipatu irakaslea lanpostuaren titularra ordezkatzeko izendatu zen eta titular horrek saileko buruzagitzaren funtzioak burutzen zituen.*

*Erabaki horren aurrean, erakunde honek eskaeraren bidez kotasuna defendatu zuen, unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen ordainsariak arautzen dituen araudiak (ekainaren 26ko 177/1990 Dekretua) bitarteko funtzionarioek oinarritzko ordainsariak eta hartu duten lanpostu hutsekoa den edo aldi baterako ordezkatzeko karrerako funtzionarioaren kasuan kasuko kidego edo eskalako lanpostu mailako osagarria jaso beharko dutela xedatzen baitu, baita betetzen duten egitekoari emandako berariazko osagarria ere. Osagarri horietako bat saileko buruzagitzari dagokiona da. Gainera, arauzko ezarpen hori bat dator hainbat pronuntziamentu judizialean aipatutakoaren. Horien arabera, karrerako funtzionarioen eta bitarteko funtzionarioen arteko lanpostua dela-eta emandako ordainsari kontzeptuei dagokienez, tratu desberdina berdintasun printzipioaren aurkakoa da.*

*Bestalde, ukoa ez zetorren bat sailak bitarteko langileen baldintzak hobetzeko zuen asmoarekin. Horretarako, karrerako funtzionario langileekin nortasun edo antzekotasun gehiago bilatu nahi zen. Asma hori unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren testuan jasotako adierazpena zen.*

*Arrazoiketa horiek ikusirik, administrazioak gure proposamena onartu zuen eta sailaren buruzagitzak lanak egin bitartean osagarria jasotzeko irakaslearen eskubidea aitortu zuen.”*

5. Bestalde, kontuan hartu behar da Hezkuntza Sailak berak baduela prozedura bat osagarria ordaintzeko aukera ematen diena ordezkapen baterako izendatuak izatearen ondorioz zikloko tutoretza- edo koordinazio-eginkizunak hartzen dituzten pertsoneri.

Kasu horretan, araudia ez dator bat kexa eragin duen karguari buruzkoarekin, nahiz eta guztiak osagarri baten bidez ordaindutako kargu akademikoak izan. Izan ere, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratutako Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren dokumentuan egiazta daitekeenez, ordezkapenaren lehen hilabetetik aurrera ordaintzen da eginkizunak bere gain hartzea, ordezkapenaren ondorioekin, eta ez da eskatzen salbuespenezko arrazoirik agerraraztea, baizik eta ikastetxeko zuzendaritzak eginkizunak esleitu izanaren ziurtagiria soilik. Horrenbestez,

<sup>10</sup> [Eusko Legebiltzararentzako txostena 2009](#)



*"1.- Ordezkoari ordainsaria ordainduko zaie, baldin eta ordezkapena, gutxienez, hilabetekoa bada eta ikastetxe eta lanpostu berean betetzen bada, eta funtzioak benetan betetzen badira. Dena dela, ondorioak ordezkapenaren hasiera-egunekoak izango dira.*

*2.- Horretarako, hilabete hori igaro eta gero, interesdunak berak eskatu beharko dio sari hori ordaintzeko lurralde-ordezkaritzako pertsonalaren atalari. Eskabidean bertan ikastetxeko zuzendariak ordezkoari tutore- edo zikloko koordinatzaile-funtzioak egotzi zaizkiola ziurtatu beharko du.*

*3.- Funtziook pertsona batek edo gehiagok bereganatzen badituzte eta ondorioz nominan eragiten badu, prozedura bera jarraitu beharko da funtzioak ordaintzeko eskatzeko."*

Argi dago, beraz, kargu akademiko horiei dagokien osagarria ordaintzeko ez dela beharrezkoa saileko buruzagitzaren osagarria ordaintzeko eskatzen diren baldintzak betetzea, ezta Hezkuntza Ikuskaritzaren alde zuzeneko baimen edo baimenik ere; beraz, azken batean, agerian geratzen da antzeko gai batean irizpide desberdinak erabiltzen direla.

6. Arestian aipaturiko 2022ko azaroaren 22ko Ebazpenaren bidez itxi zen kexa-espeditentzaren izapidetzea dela-eta, Hezkuntza Sailak Arartekoari adierazi zion, gaiaren egungo erregulazio eskasaz jabetuta, kontuan hartzen zuela, negoziazio egokiaren bidez eta tresna juridiko egoki baten bidez, egoera horiei tratamendu malguagoa ematea, zuzendaritzaren erantzukizuna jarduneko irakasleei transmititzea saihesteko.

Hala ere, kasu honetan gertatutakoa ikusita, asmo hori ez omen zen jarduketa baten bidez gauzatu.

Hori guztia dela-eta, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz:

## GOMENDIOA

Kexagileari eginkizun horiek betetzen aritu zen bitartean saileko buruzagitzari betetzeari dagokion ordainsari-osagarria ordaintzeko.

